

INDUSTRIA TEKNOLOGIA GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

MAREA KORRONTE TURBINEN ANALISIA

Ikaslea: López Landa, Bosco

Zuzendaria: Olondo Castro, Concepción

Ikasturtea: 2019-2020

Data: Bilbon, 2020ko otsailak 11

LABURPENA

Azken hamarkadetan, energia horniduraren eskaria aurrerapauso handiak ematen ari da, eta gizarteak erronka bati aurre egingo dio hazkunde hori hornitzen jarraitzeko. Gainera, CO2 isuriak gero eta kezkarriagoak dira, eta, azken urteotan, energia berriztagarria sortzeko iturrietaranzko trantsizioa egon da. Horien artean, itsas energia da, zalantzarik gabe, gutxien aztertu direnetako bat da, eta horregatik du potentzial handia ikerketa eta garapenean ustiapen mailan. Proiektu honetan marea-korrontearen energia-sorkuntzaren dimentsionamendua eta hainbat kokapen geografikotan ezartzeko bideragarritasuna aztertzen dira.

RESUMEN

En las últimas décadas, la demanda de suministro de energía está dando grandes pasos y la sociedad se enfrentará un desafío para continuar suministrando recursos para este crecimiento. Además, las emisiones de CO2 son cada vez más preocupantes y, en los últimos años, ha habido una transición hacia las fuentes de generación de energía renovable. Entre estos, la energía marina es sin duda una de las menos exploradas y es por eso que tiene un gran potencial a nivel de explotación en investigación y desarrollo. En este proyecto se analiza el dimensionamiento de la generación energética de la corriente de marea y su viabilidad en la implantación en diferentes ubicaciones geográficas.

ABSTRACT

In recent decades, the demand for energy supply is coming to take great strides and society will face a challenge to continue supplying this growth. In addition, CO2 emissions are increasingly a concern, and, in recent years, there has been a transition towards sources of renewable energy generation. Among these, marine energy is undoubtedly one of the least explored and that is why it has great potential at the level of exploitation in research and development. In this project the dimensioning of the energetic generation of tidal current and its viability in the implantation in different geographic locations is analyzed.

AURKIBIDEA

LABURPENA	1
RESUMEN	1
ABSTRACT	1
AURKIBIDEA	2
IRUDIEN AURKIBIDEA.....	5
IRUDIAK.....	5
TAULAK	6
SARRERA.....	7
TESTUINGURUA.....	8
MAREA KORRONTE SORKUNTZA	8
MAREA PRESA SORKUNTZA	8
IRISMENA ETA HELBURUAK	9
IRISMENA	9
HELBURUAK	9
Lehen mailako helburuak.....	9
Bigarren mailako helburuak.....	9
ITSASO ENERGIA MOTEN SAILKAPENA	10
MAREA ENERGIA	10
OLATU ENERGIA	11
OZEANOKO ENERGIA TERMIKOA	11
ENERGIA OSMOTIKOA	12
MAREEN JATORRIA	13
ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIA	13
ILARGIAREN ETA EGUZKIAREN ERAGINA.....	14
Marea biziak.....	14
Marea hilak	15

INDAR ZENTRIFUGOAREN ERAGINA..... 15

LURRAREN ARDATZAREN INKLINAZIOAREN ERAGINA..... 16

CORIOLIS INDARRAREN ERAGINA 17

ERRESONANTZIA FENOMENOAK 18

FAKTORE METEREOLOGIKOAK 18

MAREETAN ERAGINA DUTEN EFEKTUAK 18

MAREA ZIKLO MOTAK 19

 Erdieguneko mareak 19

 Eguneko mareak 20

 Marea mistoak 20

 Bestelako ekarpenak 20

MAREEN OSAGIAK 21

ITSAS KORRONTEEN JATORRIA 23

MAREA ENERGIA: ALTERNATIBEN ANALISIA 24

MAREA PRESAK 24

 ARRO SINPLEA ZEIN BIKOITZA 25

 Errefluxu sorkuntza 26

 Uholde sorkuntza 26

 Bi noranzkoetarako sorkuntza 27

MAREA PRESEN TURBINA MOTAK 28

 Erraboil-turbina axiala..... 28

 Turbina tubularra..... 28

MAREA PRESEN INGURUMEN INPAKTUA..... 29

KORRONTE TURBINAK 30

 KORRONTE TURBINA MOTAK 32

 Ardatz horizontala 32

 Ardatz bertikaleko turbinak..... 32

 Flotaziokoak: Blue energy project 33

KORRONTE TURBINEN INGURUMEN INPAKTUA..... 33

ERABAKI HARTZEA 34

Kokapena	34
Teknologia mota erabaki taula: Marea Presak vs. Korronte Turbinak	34
Teknologia mota erabaki taula: Korronte turbina motak	35
ATLANTIS PROIEKTUA	36
TURBINA	36
PALAK	36
PITCH SISTEMA: PALEN INKLINAZIOA	37
KONFIGURAZIO MEKANIKOA: ARDATZA ETA ERRODAMENDUAK	37
ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK	38
GANTT DIAGRAMA	39
ZEREGINEN DESKRIBAPENA	39
1. ATAZA: Proiektuaren definizioa	39
2. ATAZA: Informazioa bilatzea	39
3. ATAZA: Alternatiben analisia	39
4. ATAZA: Garapen teorikoa	40
5. ATAZA: Ondorioak	40
6. ATAZA: Lanaren amaiera	40
GANTT DIAGRAMA	41
AURREKONTUA	42
KONKLUSIOAK	43
INGURUMEN INPAKTUA	43
KOSTUA ETA ERRENTAGARRITASUNA	43
TEKNOLOGIA GARAPENA	43
BIBLIOGRAFIA	44
TESTUAREN ERREFERENTZIAK	44
IRUDIEN ERREFERENTZIAK	44

IRUDIEN AURKIBIDEA

IRUDIAK

Irudia 1 [i]	10
Irudia 2 [ii].....	11
Irudia 3 [iii].....	12
Irudia 4 [iv]	12
Irudia 5 [v]	13
Irudia 6: Ilargi eta Eguzkiaren kokapen erlatiboa marea bizietan [vi]	15
Irudia 7: Ilargi eta Eguzkiaren kokapen erlatiboa marea hiletan [vi]	15
Irudia 8 [vii]	16
Irudia 9 [viii].....	16
Irudia 10 [ix].....	17
Irudia 11 [x]	19
Irudia 12 [x]	19
Irudia 13 [x]	20
Irudia 14 [x]	20
Irudia 15 [xi].....	22
Irudia 16 [xii]	23
Irudia 17 [xiii]	25
Irudia 18 [xiv]	26
Irudia 19 [xiv]	27
Irudia 20 [xv]	28
Irudia 21 [xv]	29
Irudia 22.....	31
Irudia 23 [xvi]	32
Irudia 24 [xvii].....	33
Irudia 25 [xviii]	33
Irudia 26 [xvi]	38

TAULAK

Taula 1	34
Taula 2	34
Taula 3	35
Taula 4	38
Taula 5	41
Taula 6 - Barne orduak.....	42
Taula 7 - Amortizazioak.....	42
Taula 8 - Gastuak	42
Taula 9 - Aurrekontua	42

SARRERA

Dokumentu honetan itsas energia sorkuntzarako turbina moten ikasketa teorikoa egingo da. Horretarako, mareen analisia eta kokapen geografikoko analisia egingo da eta turbina mota ezberdinen abantailak eta desabantailak ikasiko dira.

Lehenik eta behin, itsas energia sorkuntzarako metodo ezberdinak aurkeztuko dira eta, haien artean marea energia sorkuntzaren potentziala aurkeztuko da.

Mareen ikasketan mareen osagaiak eta mareak gertatzearen zergatiak azalduko dira. Marea ikasketan ekarpen teorikoak zein enpirikoak ikasiko dira formula teorikoen eta datu estatistikoen bitartez.

Era berean, marea motak, zikloak eta marea energia sorkuntzarako kokapen geografikoak identifikazio ikasketa egingo da potentzial handiena duten kokalekuak azpimarratuz.

Azkenik, marea energia sorkuntzarako alternatibak planteatuko dira eta etorkizunerako bideragarrienak diren teknologiak identifikatuko dira ebaluatutako hainbat faktoreren eraginpean: energia sorkuntza, mantentzea, kostu ekonomikoak, itzulkortasuna, nabigazioa, sakontasuna, ingurumen faktoreak eta abar.

TESTUINGURUA

Mareen itsas energia sorkuntzan hainbat dira dauden teknologiak, eta horien artean turbina motakoak dira garatuen daudenak eta potentzia elektriko handienak sortzen dituztenak. Turbinen erabilera ere oso zabala da eta marea korrante sorkuntzan, marea presa sorkuntzan eta sorkuntza maremotriz dinamikoan bana daitezke.

Sorkuntzarako zein turbina mota zehazteak garrantzi handia dauka eta bat edo beste aukeratzeak ezin daiteke kokaleku geografikoaren baldintzak eta beharrak aztertu gabe egin. Ildo horretatik, marea aldakuntza handiak dituzten kokaleku geografikoak hautatuko dira, izan ere, zenbat eta itsasgora eta itsasbehera arteko metro diferentzia handiagoa izan etekin handiagoak lortuko dira.

Itsasotik eratorritako energia sorkuntza iturri berriztagarrien artean gutxien garatutakoa da eta hurrengo hamarkadetan erabateko garapena aurreikusten da. Ondorioz, ikerketarako potentzial handia dauka eta honek dakarren diseinu eta kudeaketa erronkari irtenbidea eman beharko zaio.

MAREA KORRONTE SORKUNTZA

Marea korrante sorkuntzako sorgailuak uraren energia zinetikoaz baliatzen dira. Energia sorkuntza mota hau energia eolikoarekin konparatu daiteke, izatez, kontzeptua bera da baina fluidoa ura da airea izan ordez. Metodo hau gero eta erabiliagoa da, alde batetik, obra zibila merkeagoa delako eta, bestetik, ingurunean inpaktu txikiagoa eragiten duelako.

MAREA PRESA SORKUNTZA

Marea presa sorkuntzak itsasgorako eta itsasbeherako altuera diferentziak eragiten duen energia potentzial ezberdintasuna erabiltzen du energia sortzeko. Metodo honen bitartez estuarioetan dikeak jartzea ezinbestekoa da eta honek ingurune inpaktu larria sor dezake.

IRISMENA ETA HELBURUAK

IRISMENA

Gradu amaierako lan (GRAL) honetan marea korrante sorkuntzako turbina ezberdinen analisia eta dimentsionamendua egingo da, ingeniarietza muga teknikoak, kokaleku geografiko bakoitzaren instalazioaren beharrak, ingurumen inpaktua eta bideragarritasun ekonomikoa kontuan hartuz.

Dimentsionamendu eta analisi honetan aurkeztutako hainbat parametro kontuan hartuko dira eta etorkizunean kokapen geografikoa edo turbina mota aldatzekotan analisi eta dimentsionamendu berria egiteko irizpideak zein datu hurbilduak eskainiko ditu.

HELBURUAK

Lan honek lehen mailako eta bigarren mailako zenbait helburu ditu.

Lehen mailako helburuak

- Mareaen zergatiak eta efektuak aztertzea
- Itsas mareaen energia potentzialeko eremu geografikoak ikastea
- Marea energia motak aztertzea
- Korrante marea energiaren analisisian sakontzea

Bigarren mailako helburuak

- Ingurumen inpaktua ikastea
- Teknologien kostu eta errentagarritasuna ikastea
- Teknologia berritzaileen ikasketa garatzea

ITSASO ENERGIA MOTEN SAILKAPENA


MAREA ENERGIA

Energia ozeanikoaren baliabiderik ugariena marea-korrontea da. Herrialde artxipelagoko batzuetan, Indonesian kasu, potentzial handieneko energia iturria da.

Mareen energia, energia berriztagarria da; gradienteaz baliatzen da marea altu eta baxuen artean, eta elektrizitatea sortzeko erabiltzen da. Marea energia bi formatan agertzen da, marea potentziala eta marea korronte energia edo marea korrontea, eta teknologia ezberdinak daude forma bakoitzerako.

Eskuarki ezagutzen da energia berriztagarri askok aldizkako patroia dutela. Marea korrontek salbuespen bat dira, aurreikusi daitekeen energia da, izan ere, oszilazio-ingar astronomikoen sortzen dutelako, eta marea korronteen ezaugarri sinusoidalak beste iturri berriztagarri batzuekiko abantaila erakusten du, eguzkiarena, haizearena eta olatuena kasu. Mareen energiak ere karga faktore handia du, energia zuzenean mugimenduan dagoen uretik datorrelako. Fenomeno hau haize energiarekin konparatu dezakegu. Ura haizea baino motelago mugitzen bada ere, ia 800 aldiz dentsitate handiagoa du, eta energia kantitate handia sortzen du. Beraz, itsasgora-korrontea, bere fidagarritasun handiarekin, ikerketarako gai garrantzitsua bihurtu da maila akademikoan eta industrialean.

Marea tarte handia duten eremuetan dago marea korronteen potentzial energetikoa. Potentzial hori handitu egiten da tokiko topografiaren arabera, uharteen arteko estuguneetan, non uraren sakonera nahiko txikia den. Ez da erraza potentzial globala zehaztea, tokiko eremuaren konfigurazioaren arabera baita, baina marea-energia osoaren kalkulu teorikoen (marea-potentziala eta marea-korrontea barne) 3 TW-koa dela esaten dute. Praktikan, kokapen egokiak batez besteko marea bizien korrontek behar ditu, 2-2,5 m/s baino azkarragoak, proiektuen bideragarritasunerako ona den energia-dentsitate nahikoa lortzeko.



Irudia 1 [i]

OLATU ENERGIA


Olatu ozeanikoen energiak modalitate berriztagarri ugari ditu. Ozeanoaren gainazalean jotzen duen haizeak sortzen ditu olatuak, eta ur sakonetan hedatzen dira, gutxieneko energia galerarekin, eta ozeano zabal irekiaren barnean haizearen energia irabazten jarraitzen dute. Olatuen energiaren eraketan eragina dute haizearen iraupenak, susperraldiak eta abiadurak. Energia olatuen gainazaletik edo gainazalaren azpiko presio gradientetik atera daiteke. Olatu ozeanikoek 2 TW elektrizitate sor zezaketela frogatu da. Olatuen energia kantitate handiena, latitudean, 30° - 60° artean dago. Olatuen energia momentuaren menpekoa da, non olatu handiak gehien bat neguan agertzen diren udan baino eta gainera olatuen energiak aurreikuspen ona duela uste da. Olatuak 24 orduetan sortzen dira, gau eta egun, eta itsasoaren egoerak eguzki-energia edo energia-eolikoa baino inertzia handiagoa du, baliabideen eskuragarritasunean bat-bateko aldaketak izateko arriskurik gabe.



Irudia 2 [ii]

OZEANOKO ENERGIA TERMIKOA


Teorikoki, egunero 60 km² inguruko itsaso tropikal azalera bilioi bat eguzki energia xurgatzen du. Eguzki argiaren energia goiko geruzan kontzentratzen da eta esponentzialki txikitzen da sakonerarekin, itsasoko uraren eroankortasun termikoa bezala. Kokapen geografikoa garrantzitsua da ozeanoaren energia termikorako, gutxienez 20°C -ko tenperatura-gradiente behar baitu, eta horrek esan nahi du eguzki-argi epe luzea duten herrialdetara mugatuta dagoela. Energia mota honek urteko sorkuntza 10.000 TWh ingurukoa izateko potentziala du. Hala ere, dagoen teknologiarekin energia-dentsitatea nahiko baxua eskuratu daiteke beste iturri berriztagarriekin alderatuta.



Irudia 3 [iii]

ENERGIA OSMOTIKOA

Potentzia osmotikoa itsasoko uraren eta ibaiko uraren arteko gatz kontzentrazioan dagoen diferentziaren bidez lortutako energia da. Prozesu honetan dagoen hondakina ur gazia baino ez da. Energia berriztagarriko iturri honek potentzial handia du ibai emaritsuak dituzten eskualdeetan: Herbehereetan, adibidez, segundoko 3.300 m³ ur-geza baino gehiago itsasoratzen dira batez beste. Beraz, potentzial energetikoa 3.300 MW-koa da, segundoko 1 MW/m³ ur freskoko.




Irudia 4 [iv]

MAREEN JATORRIA

ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIA

Lurrak bere ardatzaren inguruan duen errotazioak indar zentrifugo handiak sortzen ditu bere baitan. Fenomeno honek Lurraren diametroa ekuatorean poloetan baino 21 km handiagoa izatea eragiten du eta itsasoetako sakontasunean ere eragina dauka, ekuatorean kokatzen diren itsasoak poloetakoak baino sakonagoak izanik. Uraren sakontasuna konstantetzat har daiteke errotazioak berak duen eraginarekiko, izan ere, Lurraren errotazio abiadura moteltzen doa baina milioika urte behar dira eragina igartzeko.

Lurraren errotazioak Ilargiko eta Eguzkiko grabitazio eremuekin duen interakzioaren ondorioz mareak agertzen dira. Hauek, energia galerak sorrarazten dituzte bero eta marruskadura gisa eta, badirudi, Lurraren errotazio denboran eragina dutela, 8 h-tik (lurra sortu zenean), 24 h-ra (egungo errotazio periodoa) motelduz. Lurrak bere hasierako errotazio energiaren % 17-a galdu du dagoeneko eta abiadura murrizketa honek mareen eta errotazioaren balaztatzearen arteko erlazioa frogatzen du. Nahiz eta energia galera bat existitu, marea-energia **energia iturri berriztagarritzat** kontsidera dezakegu, galerak igartzeko periodoa milioika urtekoa baita. Eguzki sistemako gainerako planetek eta gorputzek ere mareengan eragina daukate. Hala ere, eragina hain da txikia non indar horiek mespretxatu ditzakegun.



Irudia 5 [v]

ILARGIAREN ETA EGUZKIAREN ERAGINA

Mareen fenomenoaren azalpena Newtonen grabitate indarraren legea du abiapuntu. Masa duen edozein gorputz beste gorputz batean erakarpen indar bat eragiten du, non honen modulua bi gorputzen masen biderkaduraren proportzionala eta distantzia karratuarekiko alderantziz proportzionala den. Ilargia eta Eguzkia dira Lurreko ur-masa handiak erakarriz mareetan eragina dutenak gehien bat.

$$F = \frac{G \times M \times m}{r^2}$$

F: Erakarpen indarra [N]

G: Grabitatearen konstante unibertsala $\left[\frac{N \cdot m^2}{kg^2} \right]$

M: Ilargiko edo Eguzkiko masa [kg]

m: Ur – molekulen masa [kg]

r: Ur molekulen eta Ilargi – Eguzki zentroaren arteko distantzia [m]

Ilargiak Lurrean egindako grabitate indarraren eragina Eguzkiak egindakoa baino 2.17 aldiz handiagoa da, Lurraren eta Ilargiaren artean dagoen distantzia txikiagoa delako. Ilargiaren eta Eguzkiaren eraginez marea gorakadak agertzen dira aurrez-aurre dagoen ozeano eta itxasoetan.

Ilargiak eta Eguzkiak Ibilbide ezberdinak dituzte Lurrarekiko eta urtean zehar distantzia eta kokapen erlatibo desberdinak hartzen dituzte lurrarekiko. Fenomeno honek mareetan eragina dauka Ilargiak eta eguzkiak eragindako erakarpen indarrak bateratzen edo deuseztatzen direnean. Honen arabera, bi muturreko kasu ager daitezke: marea biziak eta marea hilak.

Marea biziak

Eguzkia eta Ilargia lerrokatzen direnean agertzen dira. Aldeko lerrokapena zein kontrakoa izan daiteke. Memento honetan Eguzkiko eta Ilargiko erakarpen indarrak batzen dira eta urteko marea altuenak agertzen dira.



Irudia 6: Ilargi eta Eguzkiaren kokapen erlatiboa marea bizietan [vi]

Marea hilak


Kontra, Eguzkia eta Ilargia posizio perpendikularrak hartzen dituztenean biek eragindako erakarren indarrak deuseztatzen dira eta marea hilak sortzen dira.



Irudia 7: Ilargi eta Eguzkiaren kokapen erlatiboa marea hiletan [vi]

INDAR ZENTRIFUGOAREN ERAGINA


Lurrak duen errotazioa dela eta indar zentrifugo bat agertzez da. Indar zentrifugo horrek ozeanoetako ura lur-gainazaletik kanpora bidaltzen du. Hala eta guztiz ere, fenomeno hau konstantetzat har daiteke eta ez du eraginik marenen altuera aldaketan.



Irudia 8 [vii]

LURRAREN ARDATZAREN INKLINAZIOAREN ERAGINA

Lurraren ardatza 23.44° makurtuta dago ekliptikoarekin¹ alderatuz. Ardatzaren makurdura urtaroen erruduna izateaz aparte mareak 30° eta 60° -en arteko latitudetan nabarmenagoak izatea eragiten du. [1]



Irudia 9 [viii]


¹ Lurrak Eguzkiaren inguruan jarraitzen duen orbitaren plano.

CORIOLIS INDARRAREN ERAGINA

Coriolis efektua Lurraren errotazio mugimenduaren eraginez espazioan agertzen den indarra da. Indar honek Lurraren gainazalean desplazatzen diren objektuen ibilbidea desbideratzen du, honako ibilbideak behartuz:

- Ipar hemisferioan:
 - Ekuatoretik ipar-polorako ibilbideak ekialdera desplazatuz.
 - Ipar-politik ekuatorerako ibilbideak mendebaldera desplazatuz.
- Hego hemisferioan:
 - Ekuatoretik hego-polorako ibilbideak ekialdera desplazatuz.
 - Hego-politik ekuatorerako ibilbideak mendebaldera desplazatuz.

Lurraren errotazio mugimendua ekialderakoa da, hau da, erloju orratzen aurkako mugimendua du. Horregatik, ur masek energia disipatu behar dute ibilbideak desbideratuz eta ispilu erako ibilbideak sortzen dira ipar eta hego hemisferioetan.



Irudia 10 [ix]

Coriolis efektuak erabateko garrantzia dauka mareen ikasketan mareen efektuak guztiz eraldatzen dituelako. Lurreko itsaso eta ozeanoetan hainbat ur korrante daude. Ur korrante hauek Lurraren gainazalean puntu batetik bestera mugitzen dira, eta Coriolis efektuaren eraginez, ibilbidearen desbideratzea jasaten dute. Esaterako, Mantxako Kanalean mareak altuagoak dira Frantziako kostaldean Ingalaterrakoan baino, eta gauza bera gertatzen da Irlandako Itsasoan, non mareak altuagoak diren Liverpoolen Irlandako kostaldean baino.

ERRESONANTZIA FENOMENOAK

Mareen anplitudea, ordea, handitu egin daiteke tokian tokiko hainbat efektuaren ondorioz, hala nola, apalategia, kanalizazioa, islapena eta erresonantzia. Ur sakonetan itsasikararen altuera handitzean datza apaltze efektua, sakonera txikiko uren eremuetan sartzean olatua moteldu ahala. Marearen zabaltasuna are gehiago handitu daiteke inbutu-efektuaren ondorioz, marearen protuberantzia estutzen den estuario baterantz aurrera egiten denean gertatzen dena. Gainera, itsasikarak kostaldean izandako olatuen islapena ere indartu dezake. Leku batzuetan, itsasaldien fluxua 10 metro baino gehiagora handitu daiteke erresonantzia efektuengatik, honakoa gertatzen da, Fundyren badian Kanadan, non munduko itsasaldi handienak aurki daitezkeen, eta Severn estuarioan Ingalaterran. Erresonantzia-efektua gertatzen da estuarioko ahoko geometria mareen hedapen abiaduraren berezko maiztasuna kitzikatzen duenean.

FAKTORE METEOROLOGIKOAK

Faktore meteorologikoen ere mareen altueran eragina izan ditzakete, adibidez presio atmosferikoa eta haizearen indarra zein norabidea. Presioari dagokionez, milibare baten aldaketak itsas-mailaren 10 mm-ko altuera aldaketa dakar [2]. Bestetik, haize-boladek, batez ere bortitzak direnak itsas-mailaren altueran eragina daukate.

Faktore meteorologiko hauek momentuko aldaketak eragiten dituzte mareetan eta edozein momentuan gerta daitezke. Bapateko fenomenoak direla esan dezakegu eta mareen edozein fasean gerta daitezke. Hala ere, eragin handiena marea bizien garaian marea gora dagoenean izaten da.


MAREETAN ERAGINA DUTEN EFEKTUAK

Laburpen modura, hainbat faktorek zehazten dute mareen egoerak eta horien guztien konbinazio ezberdinek marea aldaketak ezberdinak izatea eragiten dute. Horregatik, marea ikasketan datuen historikoak eta kalkulu estatistikoak erabiltzen dira. Hala ere, hauek dira mareengan eragina duten faktorerik garrantzitsuenak:

- Ilargiko erakarpen indarra
- Eguzkiko erakarpen indarra
- Lurraren ardatzaren inklinazioa ekliptikoarekiko
- Coriolis efektua
- Erresonantzia eta sakontasun gutxiko uretan gertatutako efektuak
- Faktore meteorologikoak

MAREA ZIKLO MOTAK

Mareak fenomeno periodikoak dira eta periodo hau aurrera azaldutako faktoreen menpe dago. Hala ere eragin handiena duten faktoreak Ilargi eta Eguzkiko erakarpen indarrak dira eta horien arabera hiru marea mota bereiz ditzakegu haien perioditatearen arabera.




Irudia 11 [x]

Erdieguneko mareak

Marea mota hauek 12 h-ko periodoak dituzte ilargiko eta eguzkiko mugimendu erlatiboa dela eta. Horregatik fenomeno hau birritan ematen da errotazio periodoko (24 h) eta, beraz, itsas-gora pare bat eta itsas-behera beste pare bat agertzen dira eguneko.


Hala ere, maren anplitudeak aldakorak dira Ilargi eta Eguzkiaren kokapen erlatiboaren arabera. Esaterako, anplitude handienak ilargi-berrian eta ilargi-betean agertzen dira, Ilargia eta Eguzkia lerrokatuta daudenean.



Irudia 12 [x]

Eguneko mareak


Eguneko mareek 24h-ko periodoak dituzte, beraz, fenomeno hau behin baino ez da gertatzen errotazio periodo bakoitzean. Hori dela eta, itsas-gora eta itsas-bera bakarra dago errotazio periodo bakoitzeko. Marea mota hauek kokaleku berezietan agertzen dira, Tahitin adibidez.



Irudia 13 [x]

Marea mistoak

Marea mota hauek eguneko eta erdieguneko mareen emaitza dira. Izan ere, bi osagaien baturak itsas-gora eta itsas-behera pare bat agertzea eragiten dute errotazio periodo bakoitzeko, baina hauen kotak ezberdinak dira, segidako bi periodoetan errepikatzen diren arren.



Irudia 14 [x]

Bestelako ekarpenak

Badaude bestelako ekarpen periodikoak mareen fenomenoan eragina dutenak eta honakoak dira garrantzi handiena daukatenak:

- **14 eguneko zikloa:** Eguzki eta Ilargiaren arteko grabitazio interakzioaren ondorioz ilargiaren orbita eliptikoa aldatu egiten da. Honek elkar segidako bi marea bizik zein marea hilek %15-eko anplitude aldaketa izatea eragin dezake.
- **Urte erdiko zikloa:** Ilargiko orbitaren inklinazioa dela eta 178 eguneko periodoak bereizten dira marea bizien eta hilen artean. Hau martxoan eta irailean gertatzen da.
- **Saros:** 223 ilargi ziko dira 18 urte eta 10 eguneko periodoa hain zuzen eta ilargia, Lurra eta Eguzkia kokaleku erlatibo berera bueltatzeko behar duten denbora da.

MAREEN OSAGAIK

Mareen altuera efektu bakoitzak duen eragina batuz kalkulatzen da. Osagai garrantzitsuenak egunekoak eta erdiegunekoak dira eta horien artean honakoak dira eragin handiena daukatena:

- Eguneko efektuak:
 - Ilargiko eguneko efektua
 - Eguzkiko eguneko efektua
- Erdieguneko efektuak:
 - Ilargiko erdieguneko efektua
 - Eguzkiko erdieguneko efektua

Aurreko osagaiak kontuan hartuz, bakoitzaren ekarpena batzen da mareen altuera teorikoa kalkulatzeko, hurrengo formularen arabera. Hala ere, mareen ikasketan beharrezkoa da datuen neurketa estatistikoa egitea datuen historiko bat izateko eta mareen ekarpenak datu teorikoekin bateratzeko. [1]

$$H = \sum_{i=1}^n f_i \cdot h_i \cdot \cos(w_i \cdot T - g_i)$$

H: Marearen altuera

i: Osagaiaren zenbakia


f_i: Osagaiaren fasea

h_i: Osagaiaren batazbesteko anplitudea

w_i: Osagaiaren abiadura angeluarra

T: Denbora

g_i: Desfasea Greenwich – ekiko



Irudia 15 [xi]

ITSAS KORRONTEEN JATORRIA

Korrante ozeanikoa ozeanoetako uren eta, gradu txikiagoan, itsaso zabalen mugimendua da. Korrante hauek kausa asko dituzte, batez ere, luraren errotazio mugimendua (kontrako zentsua duten gainazaleko-korrante eta korrante sakonak eragiten dituzte), Lurraren translazio mugimendua, kostaldeen eta kontinenteen kokapen erlatiboaren konfigurazioa eta abar. Ordea, etengabeko haizeak ez dute eragin handirik korranteengan, izan ere bai korranteak eta haizeak Lurraren mugimendu astronomikoen kausa partekatzen dute. [3]



Irudia 16 [xii]

Marea korranteak kostaldetik hurbil eta itsas hondoko indarrek ura muga estuetan zehar bortxatzen duten lekuetan gertatzen dira. Beraz, oro har, marea-tarte altuak eta kanal estuak behar dira marea-korrante esanguratsuak sortzeko. Marea-bizi baten tarte, gutxi gorabehera, marea-hileko mailaren bikoitza izan ohi da.

Marea korranteak bi norabidetan isuri daitezke; kostalderantz mugitzen den korrantea uholde korrante bezala ezagutzen dena eta kostaldetik atzera egiten duen korrantea errefluxu korrante bezala ezagutzen dena.

Marea aldaketa guztiak igo eta jaitsi egiten dira, eta uholde eta errefluxu korranteak elektrizitatea sortzeko erabil daitezke. Marea ozeanikoetatik sortutako energia elektrikoa eta energia sorkuntza hidroelektrikoa oso antzekoak dira.

MAREA ENERGIA: ALTERNATIBEN ANALISIA

Mareetatik ateratako energia bi mota desberdinetan bana daiteke: alde batetik, uraren mugimendu bertikalak, mareen igoerarekin eta jaitsierarekin lotutakoak, hau da energia potentzialarekin lotutakoak. Eta, bestetik, marea-korronte deritzon ur-mugimendu horizontalen emaitza dena, hau da, energia zinetikoarekin lotura duena. Horregatik, marea energia instalazioak bi mota nagusitan sailka daitezke: marea-presak eta marea-korronteko turbinak.

MAREA PRESAK

Itsasaldien presek itsasaldien energia potentziala erabiltzen dute elektrizitatea sortzeko. Arro batean, energia potentzial teorikoa honela kalkula daiteke:

$$E = g \cdot \rho \cdot A \cdot \int z \cdot dz = 0.5 \cdot g \cdot \rho \cdot A \cdot h^2$$

E: Energia [J]

g: Grabitatearen azelerazioa (9.81 [m/s²])

ρ: Itsaso – uraren dentsitatea (aprox. 1022 [kg/m³])

A: Itsaso azalera (m²)

z: Itsas gainazaleko kota bertikala [m]

h: Mareen anplitudea [m]

Mareen tartea elektrizitate bihurtzeko behar den teknologia ohiko zentral hidroelektrikoen oso antzekoa da, baina kasu honetan, korrontea bi norabideetan doa. Horrek esan nahi du mareen presek ezin dutela elektrizitatea sortu erritmo konstantean, presaren bi aldean artean nahikoa karga hidrostatikoa izatera arte itxaron behar baitute. Marea presetako elektrizitate ekoizpena, ordea, guztiz aurreikusteko modukoa da, eta horrek argindar hornitzaileen erraztasuna ahalbidetzen du.

Marea-presa bat, oro har, 5 m-ko marea-tartea duen estuario baten bidez jarritako presa bat da. Mareen presak osatzen duten oinarritzko elementuak turbinak, uhateak, lubetak, tiraderak eta


itsasontzientzako eskusak dira. Presa, ubideen sarreran jar daiteke, non ozeanoko ura, badia baten bidez, lur nagusiaren eta uharte baten artean edo, besterik gabe, bi uharteren artean sartzen den. Lubeten funtzioa arroa zigilatzea da, tiraderen bidez zigilatuta ez dagoen tokian. Eskusak uraren igoeran alubioiaren bi aldeetan alde egokia dagoenean irekitzen dira; sortzen den presio hidrostatiakoak ura turbinetan zehar isurazten du, elektrizitatea sortzeko sorgailu elektriko bat biraraziz.

Mareen presak diseinatzerakoan, honako alderdi hauen ebaluazio teknikoak egin beharko da, proiektuaren azken forma erabaki aurretik:

- Egitura mota: arro simplea edo arro bikoitza.
- Presa eta instalazioaren kokapena.
- Funtzionatzeko modua: ekintza simplea edo bikoitza, ponpaketarekin edo ponpaketarik gabe.
- Turbinen eta sorgailuen potentzia-unitatea.
- Guztizko irteera-potentzia.

Bi marea-sakan mota nagusi daude: arro simplearen sistema eta arro bikoitzaren sistema, zeinen diferentzia nagusia arroen kopuruaren arabera den.

ARRO SINPLEA ZEIN BIKOITZA



Irudia 17 [xiii]


Arro simplearen kasuan arroa bakarra da eta estuario edo badia baten bidez presa bat behar du. Arro bikoitza ordea, bi presa eraikitzea eskatzen du, nagusia eta barrukoa, bi arro sortuz. Arro nagusia,

funtsean, arro bakarreko sistema batean errefluxua sortzearen berdina da. Aldea bakarra da, kasu honetan, honek ekoiztiko energiaren zati bat bigarren arrora ura ponpatzeko erabiltzen dela. Hori dela eta, bigarren ponpaketak biltegitarte-elementu gisa jokatzen du, eta ponpaketa horrek elektrizitatea sor dezakeen denbora-tartea zabaltzen du; beraz, sistema horrek elektrizitate-entrega doitu dezake, kontsumitzailearen eskariak asetzeko. Sistemaren abantaila nagusia eskaera handiko aldietan argindarra hornitzeko gaitasuna da. [4]

Arro sinplean zein bikoitzean hiru eragiketa-eredu nagusi daude, eta horietan energia honako eretan sor daiteke: errefluxua sortzen, uholdea sortzen eta bi noranzkoetan sortzen.

Errefluxu sorkuntza

Metodo hau marea-planta batentzako eragiketa-modu sinpleena da, non arroa urez betetzen den eskusaren uhateetan zehar uholde-marean zehar. Itsasgorak iraun bitartean, uhateak itxita daude, ura oinarrian mantenduz. Eskari txikiko aldietan, ur gehigarria ponpatu daiteke, maila are gehiago handitzeko. Eskusak itxita mantentzen dira, alubioiaren bidez funtsezko presio hidrostatisiko bat garatzeko. Ondorioz, ura turbinetan zehar jariatzen uzten da, hainbat orduz elektrizitatea sortuz, presio hidrostatisikoa turbinek modu eraginkorrean jardun dezaketen gutxieneko mailara erori arte. Behin puntu horretara iritsita, eskusak zabaltzen dira, turbinak deskonektatu eta arroa berriz betetzen da, ziklo berri bat hasiz.




Irudia 18 [xiv]

Uholde sorkuntza

Uholdeak sortzeko metodoak arroan sartzen den marea erabiltzen du energia sortzeko. Uholde-mareak iraun bitartean, turbinak eta uhateak itxita egoten dira, alubioiaren bidez karga hidrostatisiko nabarmena garatzen den arte. Behin altuera nahikoa lortuta, turbinaren uhateak ireki egiten dira, eta ura arroan barrena sartzea ahalbidetzen da.

Oro har, uholde-sorkuntza ez da errefluxua sortzea bezain eraginkorra; izan ere, arroaren goiko erdian biltegitratutako ur-bolumena (errefluxua sortzen den lekua) beheko erdian biltegitratutakoa baino handiagoa da (lehenengo betetzen da uholdea sortzen den bitartean). Beraz, arroaren eta itsasoaren arteko ur-bolumen diferentzia errefluxua sortzearekin izango litzatekeena baino azkarrago murrizten da. Beste era batera esanda, energia gutxiago ekoizten da.

Gainera, batez beste, sistemak arroaren barruan itsasoaren maila murrizten duenez, eragin negatiboa izan dezake itsas garraioan eta ingurumenean; izan ere, biltegiaren mailak etengabeko aldaketak ditu uraren mailan, eta errefluxua sortzean, berriz, arroak jasaten ditu aldaketa handienak uraren mailan.



